# Zenbakiak

30-45 minutu / +4 urte

Haur guztiak borobilean jarriko ditugu eserita eta borobil erdian animalien taula, dado bat eta robota utziko ditugu. Robota, orriaren ertz batean kokatuko dugu, animalia bakarra azaltzen den tokiaren azpian.



Zenbakien ordez puntuak dituen dadoa erabiliko dugu.

Ikasle batek dadoa botako du eta beste batek ateratako puntu kopurua kontatu. Hirugarren ikasleak, robota animalia kopuru hori dagoen tokira eramateko programatuko du.

Prozesua behi eta berriz errepikatu denek rol guztiak probatu arte.

| Helburuak | Konpetentziak | Materiala |
|---|---|---|
| • Zenbatzea<br>• Espazioaren ezagutzea<br>• Informazioa jaso eta ulertzea | **Dizplinartekoak**<br>• Matematika OK2<br><br>**Metadiziplinarrak**<br>• Pentsatzen ikasi OK8 | • Beebot robota<br>• Animalien taula A3<br>• 6 aldeko dadoa |

| Aukera gehiago |
|---|
| 1. Animalia batzuen artean paretak jar ditzakegu kopuru batera iristea zailago izateko. Paretak puntu hauetan jarriz, ibilbide bat egitea behartu ditzakegu: Txerria eta behien artean eta hipopotamo eta lepaluzeen artean.<br>2. Robotaren ibilbidea sekuentziatzeko sekuentzia txartelak erabil daitezke. |

ikastolenelkartea